Bestelako Xedapenak

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

369

AGINDUA, 2009ko urtarrilaren 23koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, Zerbitzu zuzendariari emandako eskumenak eta funtzioak bere gain hartzen dituena.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala finkatzen duen azaroaren 15eko 373/2005 Dekretuaren xedapen gehigarriaren c) idatz-zatian ezartzen duenez, Zerbitzu Zuzendaritzako hutsaldi, ez-egote edo gaixotasun egoeretan, sailburuak zehazten duen pertsonak gauzatuko ditu Zerbitzu zuzendariari emandako eskumenak eta funtzioak.

Jaurlaritzaren Kontseiluko 2009ko urtarrilaren 20ko bilkuran Mikel Arana Etxezarreta jauna Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saileko Zerbitzu zuzendari kargutik kentzeko erabakia hartu da.

Horrenbestez,

XEDATU DUT:

1. artikulua.– Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala finkatzen dituen azaroaren 15eko 373/2005 Dekretuaren bidez Zerbitzu zuzendariari emandako eskumenak eta funtzioak Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuak hartuko ditu bere gain erakunde horretako titularraren postuak hutsik dirauen artean.

2. artikulua.– Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko urtarrilaren 23a.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES

369

ORDEN de 23 de enero de 2009, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, por la que asume el ejercicio de las competencias y funciones atribuidas al Director de Servicios.

El apartado c) de la Disposición Adicional del Decreto 373/2005, de 15 de noviembre, por la que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales establece que en los supuestos de vacante, ausencia o enfermedad de la Dirección de Servicios, las competencias y funciones atribuidas al Director de Servicios, serán ejercidas por quien determine el Consejero/a.

Con fecha 20 de enero de 2009 en sesión de Consejo de Gobierno se ha dispuesto el cese de D. Mikel Arana Etxezarreta como Director de Servicios del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales.

Por tanto,

DISPONGO:

Artículo 1.– Las competencias y funciones atribuidas al Director de Servicios por el Decreto 373/2005, de 15 de noviembre, por la que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales, serán ejercidas por el Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales en tanto dure la situación de vacante del titular de dicho órgano.

Artículo 2.– La presente Orden surtirá efectos el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 23 de enero de 2009.

El Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.